

# IRAKASLEENTZAKO GIDA

## Hezkuntza kritiko emantzipatzaileko proposamena eta haren funtsezko printzipioak

MODULUA

1



www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81  
48015 Bilbo  
Tel.: 946 017 091  
Faxa: 946 017 040  
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa  
Elhuyar plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 017 464  
Faxa: 946 017 040  
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel. / Faxa: 945 014 287  
hegoagasteiz@gmail.com

### Irakasleentzako gida.

1. Modulua: Hezkuntza kritiko emantzipatzaileko proposamena eta haren funtsezko printzipioak.

Egilea: Federico Abreu Silveira (UNA gestión & comunicación).

Data: 2019ko abendua.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu.

Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

## Sarrera

Sistema neoliberalaren globalizazioak krisi ugari sortu ditu, zeinak arriskuan jartzen baitute bizitza eta sakontzen baitituzte desberdintasunak. Ezinbestekoa da duintasuna itzuliko duten eta guztientzat etorkizun hobearen itzaropena bideratuko duten alternatibak eraikitzea. Labirinto horretan daude harrapatuta ekonomia, gizartea, lana, kultura, politika, bai eta hezkuntza ere.

Krisi testuinguru horren berri ematen du modulu honek, bai eta gizartea eraldatzeko hezkuntza ulertzeko eta, ondorioz, aldatzeko moduaren berri ere. Horrez gainera, hezkuntza kritiko emantzipatzaileak jaso behar dituen printzipioetako batzuk finkatzen ditu.

## Helburuak

Modulu hau egin ondoren, gai izango zara:

1. Hezkuntza kritiko emantzipatzailearen kontzeptua eragin duten etapak identifikatzeko.
2. Proposamenaren sorrera testuinguruan jartzen duen krisi sistemiko edo zibilizatazailearen adierazpenak ezagutzeko.
3. Hezkuntza kritiko emantzipatzailea osatzen duten elementu nagusiak bereizteko.

## Edukiak

### 1. Garapenerako Hezkuntzaren bilakaera. 1. belaunalditik 5. belaunaldira

Hezkuntza kritiko emantzipatzailea gogoeta eta proposamen etengabearen emaitza da. Hausnarketa eta proposamen horiek aurreko mendeko 50eko hamarkadan sortu ziren, eta estu lotuta daude garapeneraren kontzeptuarekin berarekin eta garapenerako lankidetzaren ekintzekin. Adierazi beharra dago garapeneraren ideia ere eraikuntza teoriko bat dela eta ez dela modu berean ulertzen abiapuntutzat hartzen diren joera teorikoen arabera. Gogoeta batzuek hazkunde ekonomikoaren ideiarekin lotu izan dute garapena; beste batzuek, aldiz, ongizatearen kontzeptuarekin lotzen dute, eta eraldatzaileenek, berriz, Bizitza Onaren ideiarekin (gure testuinguruetan, bizitzaren jasangarritasunerantz orientatzen dugu). Hurrengo lerroaldeetan ikusiko ditugu kontzeptu horiek guztiak.

Estatuen aberastasuna, hurbiltze horietako lehenengoaren arabera, eskaintza eta eskaria autoerregulatzeko prozesu natural baten emaitza da. Merkatua, berez, gai da desberdintasunen balantza orekatzeko, eta nazio bakoitzak garapena lortu ahal izango du, baldin eta beste nazio batzuetan frogatutako hainbat estrategia gauzatzen baditu eta estrategia horiek oinarritzen badira merkataritza askatasunean eta Estatuak esku ez hartzean. Ikuspegi hori izan zen, hain zuzen, garapenerako lankidetzaren lehen ekintzen oinarria; une hartan, herrialde "garatuak" herrialde "azpigaratuak" <sup>1</sup> formulak eta teknologia transferitzen saiatu ziren, haien hazkunde ekonomikoa bultzatzeko helburuarekin.

---

1 Garai horretan batzuei zein besteei aplikatzen zitzaizkien zizendapena erabiltzen da.

Bigarren irakurketak, aurrekoa gaindituz, gizarte ooren oinarrian interes kontrajarriak daudela adierazten du, eta orobat adierazten du horiek konpontzeko helburua duten ekintza zehatzak aurrera eramaten badira gainditu ahal izango direla desberdintasun horiek, eta ez bestela. Ongizatea lortzeko, tresnak eskaini behar zaizkie egoera ahulenean dauden taldeei, beren hazkundearen eta ongizatearen eragile izan daitezten. Testuinguru horietan metafora bat sortzen da: hobe da norbaiti arrantzan irakastea, arraina oparitzea baino.

Are gehiago, pentsamendu latinoamerikarretik abiatuta, hausnarketak garapenaren kontzeptuari ere heldu behar dio, eta hori gainditzeko tresna izan behar du hezkuntzak. Horrela, hirugarren korrante bat aipa dezakegu, zeinak adierazten baitu inork ezin duela benetan arrantzatzen ikasi, baldin eta gutxiengo bat bada kanaberaren, itsasoaren eta arrainen jabe eta gutxiengo horrek gehiengoaren sumisioan oinarritzen badu bere boterea. Korrante horrek defendatzen du, halaber, gehiengo horiek askotarikoak direla eta gizarteko sektore guztiak bizitza betean elkarbizitzeko baldintza errealetan egon behar dutela bizitza on bat lortzeko. Horrez gainera, honako ideia honetan oinarritzen da: betetasun hori posible da, baliabide naturalen erabilera zorrotz eta arduragabea alde batera uzten den neurrian.

Bizitza Onaren edo Ondo Bizitzearen ideia, Hego Amerikako jatorrizko herrietan sortua, ongizatearen hurbilketan baino hurbilketa konplexuago batean oinarritzen da. Gizakiek bizitza harmoniatsua eta betea edukitzeko baldintza materializat hartzen da kontzeptu hori; Ongi Bizitzeak, berriz, begirada kolektiboa hartzen du aintzat. Ez da nahikoa pertsona guztiek bizitzeko beharrezko baldintzak izatea, baldin eta hori ez bada begirada kolektibo batetik eraikitzen; Ondo Bizitza bizikidetzan oinarritzen da, ondo bizi, baina komunitateko gainerakoekin eta naturarekin harmonian.

Horrela, bada, aurreko lerroaldeetan aipatutako beste kontzeptuek garrantzi handia hartzen dute: ondo bizi ahal izateko, gizarte talde guztiek gaitasun berberak izan behar dituzte baliabideak eskuratzeko eta erabiltzeko, gizarteetan elkarrekin bizi diren kultura guztiek bat egin behar dute, emakumeek eta gizonek eskubide berberak eduki behar dituzte eta gure bizitzak indarkeria mota guztietatik libre egon behar du, baliabide naturalak babestu behar dira eta planetaren eta bizitzaren iraunkortasunerako ekintzak aurreikusi behar ditugu.

Hortaz, gizartearen ideia eurozentrikoa jarri behar da zalantzan, ez baititu bizitza eta bizikidetzak ulertzeko modu alternatiboak egokitzen. Eredu horren gainean eraiki dira gizarte modernoak, eta eredu hori berrikusi behar da; hezkuntza da hori lortzeko tresna. Paulo Freirek zioen hezkuntzak ez duela mundua aldatuko, baizik eta mundua aldatuko duten pertsonak aldatuko dituela; beraz, gizarte bidezkoagoak eta gizatiarragoak eraikitzeko, beharrezkoa izango da pertsona justuagoak eta gizatiarragoak eraikitzea.

Hezkuntzaren bidez gizartean begirada kritikoa eragiteko ahalegin hori, ordea, ez da inondik ere berria. XX. mendearen erdialdean sortu zen Garapenerako Hezkuntza (GH) izenekoa, Europako garapenerako gobernu kanpoko erakundeek (GGKE) lankidetzan prozesuei lotuta. Lehen ahaleginetatik gaur egun arte garrantzizko bilakaera prozesua izan du garapenerako hezkuntzak, garapen kontzeptuak berak bezain garrantzitsuak. Bilakaera hori zabal landu da hainbat analisitan, eta teoria bat dator Garapenerako Hezkuntzaren etapa bakoitzari "belaunaldi" esatearekin.

**Lehenengo belaunaldia** joan den mendeko 50eko hamarkadan sortu zen, hain zuzen ere, garapenaren kontzeptua bera finkatzen hasi zenean, Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako munduaren berrantolamenduak eta Nazio Batuen Erakundearen (NBE, 1945) eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (1948) sorrerak bultzatuta. Sarritan esaten zaio "Garapenerako Hezkuntza, karitatearen eta laguntzaren ikuspegitik". Lehen aldi horretan, garapenaren ideia estu lotuta dago hazkunde ekonomikoarekin; ikuspegi horren arabera, "Gutxien garatutako" gizarteek hazkunde ekonomikoa erraztuko luketen industrializazio prozesuen bidez lortuko lukete ongizatea. Aldi horretan, GGKE-ek "Hirugarren Munduko" herrialdeetan jardun zuten nagusiki, ekintza humanitarioen eta elikagaien bidalketen bitartez; "Lehen Munduan", berriz, Europako gizarteek planetako beste eremu batzuetan bizi zen desabantaila egoeraz sentsibilizatzea bilatzen zuten, dirua biltzeko asmoz. Jarduera horiek,

funtsean, ez zuten hezkuntza osagairik, karitatezkoa baizik, eta ez zieten heltzen pobreziaren kausei, ez eta Europako gizarteek egoera horretan duten erantzukizunari ere.

60ko hamarkadan, gerraren ondoren Europa berreskuratzearekin batera, ideia bat hasi zen indar hartzen, zeina baita mendebaldean garapen eredu desiragarri bat dagoela eta herrialde garatuak ahaleginak batu behar dituztela "garatzeko bidean" daudenen prozesuetan laguntzeko. Garai horretan gogor ahaleginak ziren Europako GGKEak garatze bidean dauden gizarteetara teknologia eta ezagutza transferitzen. Testuinguru horretan sortu zen **bigarren belaunaldia**, ikuspegi desarrollista batekin, zeinak dagoeneko ez baitu funtsak biltzera bideratutako ikuspegi asistentzialista hutsa; aitzitik, Hegoaldeko herrialdeen egoeraz sentsibilizatzeke joera duen hezkuntza estrategia planteatzen du. Hala ere, ez du sakontasunez aztertzen zein diren pobreziaren egiturazko kausak, eta orobat ez du aztertzen Iparraldetik inposatutako garapen eredu horrek nola sortzen dituen desberdintasunak.

70eko hamarkadaren amaieran, Hegoaldean pobreziak sortzen dituen baldintzei buruzko begirada kritikoagoa eta herri horien egoerarekiko solidarioagoa azaleratzen hasi zen. Esan behar da **hirugarren belaunaldi** honetatik aurrera sendotzen den begirada horizontalagoa dela, eta igartzen hasten da Hegoaldean pobrezia sortzen duten baldintzak estu lotuta daudela Iparraldetik inposatutako garapen ereduarekin. Eskuarki, "Garapen kritiko eta solidariorako hezkuntza" esaten zaio. Aldi berean, Latinoamerikan beste pentsamendu korrante batzuk ere sendotzen ari dira, zeinak gogor kritikitzen baitute eskualdean inposatutako eredu desarrollistek eragindako baldintzak. Europatik eta Ameriketako Estatu Batuetatik inportatutako tresna horiek gaingintzeko estrategia gisa sendotzen dira Paulo Freireren eta Herri Hezkuntzaren (HH) hezkuntza ahaleginak. HH talde zapalduei eurei emantzipatzeko tresnak emateko joera duen ikuspegia da, Brasileko ipar-ekialdean bereziki. Gizartearen bizi baldintzak eraldatzeko pentsatutako hezkuntza da, eta desberdintasunaren ondorioak ez ezik, haren kausak ere iraultzeko eskaera egiten du. Kritika testuinguru horretan, garapen ekonomizistako ereduarekiko zalantzak indartzen hasi dira, bai Iparraldetik bai Hegoaldetik.

Garapenerako Hezkuntzaren **laugarren belaunaldia** ("Giza Garapenerako eta Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza") 80ko hamarkadan sortu zen, Iparraldetik inposatutako garapen ereduak Hegoaldean izan zituzten ondorio gogorren argitan. Latinoamerikan, 80ko hamarkada bereziki iluna izan zen: AEBen politiken eraginpean diktadura militarrek sendotu ziren, eskualde osoa zorpetu zen eta biztanleriaren sektore batzuk miseria murgildu ziren eta beste batzuk jazarri, desagerrarazi eta erail egin ziren. Alabaina, 80ko hamarkada gordina izan zen, halaber, mehatxu nuklearraren eta jada hasi berria zen klima aldaketaren ondoriozko ingurumen hondamendi gero eta handiagoen mende bizi zelako. Testuinguru horretan, nazioarteko erakundeak onartzen hasi ziren zenbateko eragina duen ereduak ingurumen arazoetan, eta jabetu ziren premiazkoa zela bizitzan eta gizakietan, eta ez hazkunde ekonomikoan, zentratutako garapena bideratzea. Aldi horretan, GGKEak gero eta profesionalizatuago zeudenez, Garapenerako Hezkuntzaren ahaleginak garapen ekonomizistaren ereduaren ondorioei buruzko ezagutza teorikoa sortzera bideratu ziren, pobreziaren aurkako borrokatik haratagoko beste begirada batzuk txertatuz, hala nola giza eskubideen eta generoaren errespetua.

**Bosgarren belaunaldiari** "Herritar globalentzako Garapenerako Hezkuntza" esaten zaio. Horretan, XXI. mendeko ongizate estatuen krisiak, IKTen hedapenak, globalizazioaren eta munduko ekonomia gehienetan neoliberalismoa eredu hegemoniko gisa finkatzeak ateak zabaltzen dizkio Iparraldearen eta Hegoaldearen dikotomia hausteko aukerari. Agerian geratu da ezarritako garapen ereduak, ez iparraldetik, eliteetatik baizik, pobrezia, bazterketa eta desberdintasun egoerak sortzen dituela planetako eskualde guztietan. Aldi berean, Iparraldeko GGKE-en ekintzak politikoagoak bihurtu dira, gobernuen aurreko eragina sakonduz, eredu bidezkoagoak, justuagoak eta inklusiboagoak lortzeko borroka estrategia gisa. Bestalde, Hegoaldeko GGKE-ek protagonismo handia hartu dute ahalduz, borroka eta mobilizazio sozialeko prozesuen antolamenduari dagokionez.

Gaur egun "Hezkuntza kritiko emantzipatzailea" deritzogun hori da, hain zuzen, hezkuntza gizartearen eraldatzeko eragile gisa hartzen duen ideia iristeko bilakaera prozesu horren emaitza, eta horretan jarriko dugun arreta hurrengo orrialdeetan.

## 2. Hezkuntza kritiko emantzipatzailea

### 2.1. Testuingurua

Aurretik esan bezala, XX. mendearen azken erdialdean eta XXI. mendearen lehenengo hamarkadetan, sistema kapitalista nagusitzen joan da munduko bazter guztietan. Salbuespen bakar batzuk salbu, eredu hori da mendebaldeko herrialde gehienetan nagusi. Latinoamerikan "hamarkada irabazia"<sup>2</sup> deituaren bitartez, mendearen hasieran sortutako itxaropena berehala lehengoratu da, gobernu neoliberalen helduerarekin eta mugimendu xenofobo eta militaristen hazkunderarekin.

Hazkunde ekonomiko mugagabearen oinarritutako garapen ereduaren hedatzeak krisi ugariaren edo krisi zibilizatzaile edo sistemikoen testuinguru historikoa ekarri du. Esan beharra dago ereduaren ondorioek larriki eragiten dietela giza bizitzaren hainbat alderdiri eta gaitz horiek maila globalean gertatzen direla. Teoriak zein nazioarteko erakundeek ez dute uste fenomeno isolatuak direnik; aitzitik, bizitza mantentzearekin eta ongizatea lortzearekin bateraezina den egoera baten aurrean gaudela baieztatzen dute.

Krisiak, esan bezala, gizakiaren bizitzaren alderdi guztiei eragiten die, eta gero eta desberdintasun handiagoak sortzen ditu biztanleriaren sektore handietan. Gaur egun, gehien lantzen ari den eta larritasun handiagoz iristen ari zaigun krisia ingurumen krisia da. Azterketa guztientzat agerikoa da ekoizpen baldintzak bateraezinak direla bizitzaren mantentzearekin eta irtenbide bat bilatu beharko dela lehenbailehen aldaketa klimatikoaren kausak bihurtzeko. Dena dela, ingurumenaren krisia krisi sistemiko baten adierazpena baino ez da, eta horrek berarekin dakar, orobat, pobrezia globala, genero desberdintasuna, desoreka lan harremanetan, kapitalaren pilaketa finantza sisteman, merkatuak elikagaien prezioarekin espekulatzea, intentsitate apaleko demokraziak, etab. Bidegurutze hori ez da krisi askoren batura, sistema global baten porrota baizik. Ikuspegi guztien konplexutasunaren beraren ondorioz, zaila da adostasuna lortzea gaiari heltzeko moduari dagokionez.

Esan dugunez, gure gizartearen oinarrietako batek lotura du aurrerapena hazkunde ekonomikotzat hartzearekin. Era horretara, gizarte batek sortzen dituen ondasun eta zerbitzu kopuruaren arabera neurtzen da gizarte horren "arrakasta", baita sozietate hori osatzen duten pertsonen kontsumo gaitasunaren arabera ere. Horrela ulertutako aurrerapenak ez ditu kontuan hartzen gizakiaren bizitzaren parte diren aldagai ugariak. Hortaz, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena mugarik gabe handitzeko ahalegina kontrajartzen zaio ekoizpena ahalbidetzen duten giza eta ingurumen baldintzen zaintzari. Beraz, ekoizpenak (baldintza ekonomikoei lotua denak) berebiziko balioa hartzen du gizartean, bizitza mantentzeko ezinbestekoak diren beste prozesu batzuen kaltetan. Bestalde, kontsumoa jarduera indibiduala eta *indibidualizatzailea* izan ohi da, eta, beraz, gizarte baten bizitzaren alderdi kolektiboak baztertuta geratzen dira aurrerapenaren ekuazioan.

Krisi sistemiko edo zibilizatzaile horrek, esan dugun bezala, adierazpen ugari ditu. Ez dira hainbat krisi gainjarriak, sistema beraren adierazpenak baizik. Adierazpen horietako batzuk aipatuko ditugu erreparazio azkar baten bitartez.

Krisiak adierazpen ekonomikoa du, zeinaren eraginez krisi egoeran edo ezegonkortasun egoera berri baten mehatxupean baitago planeta osoa modu ziklikoan, bankaren gehiegikerien ondorioz eta finantza

---

<sup>2</sup> "Hamarkada irabazia" gutxi gorabehera Latinoamerikan 2013-2015 urteetako aldiari esaten zaio. Bereziki Argentinan aplikatu den termino bat bada ere, kontinente osora hedatu litekeela uste dugu. Urte horietan, herrialde askotan –Hego Amerikan bereziki– ezkerreko buruzagi eta mugimenduak iritsi ziren agintaritzara: Néstor Kirchner eta Cristina Fernández (Argentina), Fernando Lugo (Paraguai), Luiz Inácio Lula da Silva eta Dilma Rousseff (Brasil), Tabaré Vázquez eta José Mujica (Uruguai), Michelle Bachelet (Txile), Rafael Correa (Ekuador), Evo Morales (Bolivia), Hugo Chávez eta Nicolás Maduro (Venezuela). Urte horietan, Latinoamerikako biztanle sektore askorentzat nabarmen handitu ziren eskubideak eta murriztu ziren pobrezia eta desberdintasunak, eta asko aurreratu zen Estatuek garapena, gizarteratzea eta aberastasunaren birbanaketa bermatzeko betetzen duten rolean.

sistemaren hedapenetik abiatuta. Aipatzekoa da Europan gogoratzen den krisia 2008ko azken krisia dela, baina hori baino lehenago, 1994an, Mexikon gertatu zen, 1997an Asiako hainbat herrialdetan eta Brasilen lehertu zen krisia, eta 2001etik 2002ra Argentinan eta Uruguain gertatu zen. Krisi ekonomikoak sistema kapitalistaren parte dira, bai eta haren babesean aplikatzen diren eredu ondoriorik saihestezina ere.

Krisi sozial eta humanitarioa ere badago; jarduera kapitalisten ondorioz, munduko biztanleriaren sektore handiak pobrezia ildoaren azpitik daude, edo, zuzenean, bazterturik. 2008an, Munduko Bankuak onartu zuen biztanleriaren ia erdiak (3.400 milioi pertsona) ez dituela bere oinarrizko beharrak aseturik. Zerbitzu gehienak pribatizaturik daudelarik, pertsona horiek ez dute edateko urik, eta ez dute osasungintzarako, hezkuntzarako eta abarretarako aukerarik. Krisi sistemikoaren alderdi horrek bereziki emakumeei eragiten die, emakumeak baitira behartsu gehienak; emakumeak dira, halaber, hezkuntza eta osasun zerbitzuak jasotzeko zailtasun gehien dituztenak, eta emakumeek lehen pertsonan bizi dituzte beren kontra baliatzen diren indarkeria mota ugariak.

Lehen ere esan dugu krisia ekologikoa ere badela, ekoizpen eta kontsumo sistema asetzeko beharrezkoa baita baliabideen erabilera neurrigabea, eta horrek, era berean, azken mendeetan gizakien bizitzarako izan den mehatxu handienetako bat ekarri du berarekin.

Krisi zibilizatzaileak demokrazia ordezkatzaillearen sistema politikoan eragiten du. Klase politikoaren zati bat botere ekonomiko eta finantzarioaren zirkuluetatik hurbil egoteak, biztanleriaren sektore zabalen bizitzan neoliberalismoak dituen ondorioak mugatzeko estrategiarik ez izateak, deslokalizazio industrialeko eta merkatuaren liberalizazioko politikak babesteak, horrek guztiak, eskuin muturreko mugimenduak berpiztea eragin du, eta eskubideen arloan atzerakada larria eragiteko arriskua dago horiekin.

Azkenik, krisi anitzen testuinguru horretan, krisi epistemologikoa nabarmendu nahi genuke bereziki, hezkuntza prozesuekin erlazionatzen den moduagatik. Tradizio positibistak zientzia modernotik datorren ezagutza baino ez du legitimotzat hartu du, hau da, baliozko bakartzat hartu du hura. Horrela, sistemaren marjinetatik sortutako beste jakintza batzuk alde batera edo barregarri uzten dira, zorrotasunik ez dutelako. Jakintza horiek antzinako ezagutzak dira, bizitza eta natura leku alternatibotatik –hegemonikoak ez diren lekuetatik– azaltzeko aukera ematen dutenak, eta legitimotzat jotzen denetik kanpo geratzen dira.

Beraz, hezkuntza kritiko emantzipatzailearen proposamenari heltzeko, ulertu behar da sistema global baten aurrean gaudela, eta sistema horrek, hedatu denean, krisi ugari eragin dituela. Krisi anitz horiek ez direla sistemaren akatsa, baizik eta neoliberalismoak eragiten duen desberdintasunean oinarritzen dela, hain zuzen; hau da, neoliberalismoak krisi horien beharra du bizirik irauteko. Krisi horiek, halaber, ezagutza sortzeko moduari ere eragiten diote; beraz, sistemaren ondorioak iraultzeko, beharrezkoa da hezkuntza birpentsatzea.

## 2.2. Hezkuntza kritiko emantzipatzailearen printzipioak

Eraldaketa sozialera bideratutako hezkuntza eredu bat ezin da oinarritu ez balioetan, ez teorietan, ez ezagutzaren ekoizpen hegemonikoan nagusi diren metodologietan. Bestelako helburuak bilatzen dituzenez, oinarri dituen printzipioek ere bestelakoak izan behar dute. Hezkuntza eredu kritiko eta emantzipatzailea osatzen duten elementuak dira printzipio horiek.

**Kapitalismoa desnaturalitzea:** hezkuntza eredu emantzipatzaile batek aldarrikatzen du sistema kapitalista talde hegemonikoek eraikia dela, eta, hala denez, alda daitekeela eta aldatu behar dela. Krisi ekonomikoetan ohikoa da botere politiko edo enpresarialeko ordezkariak entzutea aplikatzen ari diren irtenbideak “posible diren bakarrak” direla eta nazioarteko finantza sistemaren ildoak ezinbestekoak direla gizartearen ongizaterako. Estrategia horren bidez, ekonomiaren forma natural gisa erakutsi nahi da kapitalismoa, eta, horrek, aldi berean, ikusezin bihurtzen du bereziki emakumeek egiten duten zaintza lana, eta horretaz baliatzen da.

**Imajinario kolektiboa deskolonizatzea:** kapitalismoa naturalizatzen den modu berean, saihestezintzat hartzen ditugu sistemak gizartearen imajinarioan egin dituen beste ainguraketa mota batzuk. Egoera bat "normala" dela defendatzea da ezer ez aldatzeko estrategiarik onena. Horrela normalizatzen dira arrazismoa, xenofobia, indarkeria, neurritz kanpokotzat jotzen dira mugimendu feministaren aldarrikapenak, pertsona pobreen ahalegin eta konpromiso faltatik abiatuta azaltzen da pobrezia, eta abar. Esan beharra dago errealitatea sinplifikatu eta errazago ulertzeko eraiki ditugula estereotipoak. Menderakuntza eredu anitzen lotura horiek ulertzea eta horiek haustea da hezkuntza emantzipatzailearen helburuetako bat.

**Feminismoa proiektu politiko gisa:** feminismoek agerian jarri dituzte eta jartzen dituzte sistema kapitalista eta patriarkala erreproduzitzeko mekanismo ikusezinak. Haien gogoetetatik eta, batez ere, borroketatik abiatuta azaleratzen joan dira desberdintasunei eta bidegabekeriari eusteko estrategia politiko, kultural eta ekonomikoak.

**Subjektu politikoaren eraikuntza:** hezkuntza kritiko eta emantzipatzaileak sustatzen duen proiektuan emakumeek eta gizonak egiturazko aldaketak eragiten dituzte, ahalduntzearen estrategiaren bidez. Tresnak eman nahi dizkie, talde zapalduak kontzientzia har dezaten eta, hortik abiatuta, desberdintasun logikak hautsi eta planetako pertsona guztientzat bizitza askea bermatuko duen bizikidetzaren eredu bat eraikitzeko gai izan daitezten.

**Aldaketa sozialerako garrantzizkoa den ezagutza eraikitzeko prozesu kolektiboak:** ezagutza eraikitzeko modua bera ere aldaketarako estrategia bat da. Hezkuntza emantzipatzaileak bilatzen duen ezagutza ez da androzentrikoa, enozentrikoa eta antropozentrikoa, akademiaren bestelako eragileak jakintzak sortzeko legimitatuta egotea bilatzen du eta historikoki ezkutatu eta baztertu diren beste ezagutza batzuei eman nahi die balioa (herri jakintzak, nekazariak, emakumeak, beste kultura batzuenak...).

**Gizarte justizia, solidaritatea, jasangarritasuna eta ekitatea:** ekitatea eta ezagutza kritikoak herritar gehienek bizitza hobetzera eta bereziki sistemak gehien zapaltzen dituenen hobetzera bideratua izan behar du. Askatasunerako ekitateak dira, gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasunarekin eta desberdintasunaren kontrako borroketekin bat eginez.

Laburbilduz, hezkuntza kritiko emantzipatzailearen kontzeptuak ari garenean, gizartearen eraldatzeko motortzat hartzen ari gara hezkuntza. Jardunei eta teoriari dagokienez izan den bilakaeraren ondorioz, ezinbestekoa bihurtu da, eredu ekonomiko eta sozial hegemonikoek eragindako krisi sistemiko honetan, eta justizia, elkartasun, jasangarritasun eta ekitate balioekiko konpromisoa du ezaugarri nagusia.

## Lan metodoa

Modulu hau autoikaskuntzarako tresna gisa erabiltzeko diseinatuta dago, eta, beraz, aplikatu beharreko metodologiaren bitartez ikaslearen lan autonomoa bilatuko da. Horregatik, garrantzizkoa da ikasle bakoitzak edukien sistematizazioa ondoen iruditzen zaion moduan antolatzea. Tutoretzarik ez dagoenez, hona hemen gure ustez modulua hobeto aprobetxatzeko baliagarria izan daitekeen lan sistema:

Irakurri irakasleentzako gida, baita derrigorrezko bibliografiako materialak ere, eta egin horren laburpena. Laburpen horretarako gakoak edukiei erreferentzia egitea eta jarraian iradokitzen dizkizugun tresnak erabiltzea proposatzen dizugu. Hala ere, gogoratu ikasketa metodoak zure ezaugarrietara ondoen egokitzen dena izan behar duela; beraz, hurrengo puntuak orientagarriak dira.

1. Sortu hiru zutabeko eskema bat, eta bertan laburtu: lehenengoan, belaunaldi bakoitzaren sorrerari laguntzen dioten nazioarteko politikaren baldintzak; bigarrean, lankidetzak aldi



bakoitzean dituen ezaugarriak; eta hirugarrenean, Garapenerako Hezkuntzaren belaunaldi bakoitzaren ezaugarriak.

2. Saiatu esaldi bakar batean laburtzen gida honetan aipatzen diren krisiaren adierazpen guztiak, eta bilatu Interneten horietako bakoitzarekin lotura duten albisteak, eta saiatu bertan planteatzen diren elementu kritikoak ezagutzen, hala badagokio.
3. Aztertu hezkuntza kritiko emantzipatzailearen printzipioak, eta egin bi zutabeko eskema bat, printzipioaren izenarekin eta zure ustez ezaugarri nagusitzat jo daitezkeenarekin. Adibidez: Kapitalismoa desnaturizatzea, ezaugarri nagusia: erakustea hori ez dela posible den eredu ekonomiko bakarra.

Nahitaezko material guztiak irakurri eta dagozkien eskemak egin ondoren, ebaluazioa egin ahalko duzu. Bi zati ditu; lehenengoa aukera anitzeko test bat da, moduluan landutako kontzeptuak ulertu dituzun ala ez autoebaluatzeo aukera ematen dizuna. Lehen ebaluazio hori gainditzeko, proposatutako bost galderetatik gutxienez hiru erantzun behar dituzu zuzen. Orik 10era bitarteko kalifikazio eskalan, 3 galdera zuzen 6ren baliokidea dira, lau galdera zuzen 8rena eta galdera guztiak zuzen 10ena. Ebaluazioaren bigarren zatiak modulua eduki bakoitzari heltzeko zailtasun maila identifikatzen lagunduko ditu.

## Moduluaren ebaluazioa

### Testa

Erantzun galdera hauei:

1. Belaunaldietan gertatzen diren aldaketak bereziki honako hauek bultzatzen dituzte:
  - a) Unibertsitatearen esparruan sortutako gogoeta teorikoak.
  - b) Garapen ereduak eta lankidetzaren jardueretako aldaketak.
  - c) Nazioarteko erakundearen ildoak.
2. Garapenerako Hezkuntza garapen ereduari buruz kritiko izaten hasten da:
  - a) Hirugarren belaunalditik aurrera.
  - b) Laugarren belaunalditik aurrera.
  - c) Beti izan da.
3. Fernández, Piris eta Ramiroren testuaren arabera, honako hauek dira modernitate kapitalistaren ezaugarriak:
  - a) Aurrerapena hazkuntza ekonomikotzat hartzea.
  - b) Ekoizpen eta banaketa kapitalistaren forma espezifikoak.
  - c) Demokrazia liberal-ordezkarria.
  - d) Aurreko guztiak.

4. Sistema kapitalistan, krisiak:

- a) Sistemaren akatsak dira, eta saihestu daitezke, neurri zuzenak aplikatuz gero.
- b) Sistemaren egiturazko osagaiak dira, sistemak bizirik irauteko behar dituenak.

5. Kapitalismoa naturalizatuta dagoela esaten da:

- a) Sistema zabalduena delako.
- b) Ekonomia modernoaren forma natural gisa legitimatu delako.
- c) Demokrazia modernoan posible den eredu ekonomiko bakarra delako.

Autoebaluazioa

	Erraz egin dut	Neketsua izan da, baina egiteko gauza izan naiz	Zailtasun asko izan ditut, baina, azkenean, egiteko gauza izan naiz	Saiatu banaiz ere, ez naiz gauza izan
Argi identifikatzen ditut Garapenerako Hezkuntzaren bost belaunaldien arteko aldeak				
Ulertzen dut zergatik hitz egiten dugun, testuinguru honetan, krisi sistemiko edo zibilizatorioari buruz				
Identifikatzen eta gogoratzen ditut hezkuntza kritiko emantzipatzailearen ildo nagusiak				

## Derrigorrezko materialak

Del Río Martínez, Amaia eta Celorio Díaz, Gema (2015). *La educación crítica emancipadora. Diagnóstico en la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) (2011-2015)*. 1.3.1 Kapitulua. Principios de este enfoque educativo. (18-20. or.). Bilbo: Hegoa, UPV/EHU. Hemendik hartua: <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/376/Diagnostico\\_EE\\_UPV\\_%28cas%29.pdf?1537433378](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/376/Diagnostico_EE_UPV_%28cas%29.pdf?1537433378)>.

Fernández, Gonzalo; Piris, Silvia eta Ramiro, Pedro (2013). *Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores: bases para un encuentro necesario*. Capítulo 1.1. La crisis como fenómeno civilizatorio. (22-44. or.). Bilbo: Hegoa, UPV/EHU. Hemendik hartua: <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/229/Cooperacion\\_internacional\\_y\\_movimientos\\_sociales\\_emancipadores.pdf?1488539779](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/229/Cooperacion_internacional_y_movimientos_sociales_emancipadores.pdf?1488539779)>.

Orrego Echeverría, Israel Arturo (2014). Educación para el Desarrollo en zapatos latinoamericanos: apuestas ético-epistémicas para una educación social y crítica. Capítulo: Devenir histórico de la Educación para el Desarrollo: del asistencialismo a la lectura crítica y comprometida del contexto. (181-191. or.). In Germán Juliao Vargas, (konp.) *Pedagogía praxeológica y social: hacia otra educación*. Bogotá: Corporación Universitaria Minuto de Dios. Giza eta Gizarte Pentsamenduaren Zentroa. Hemendik hartua: <[https://repository.uniminuto.edu/bitstream/handle/10656/4210/Libro\\_Hacia%20otra%20educacion.pdf?sequence=1](https://repository.uniminuto.edu/bitstream/handle/10656/4210/Libro_Hacia%20otra%20educacion.pdf?sequence=1)>.

## Material osagarriak

Rauber, Isabel (2014). Descolonización, liberación y educación para el cambio civilizatorio. Claves sociales, políticas, económicas y culturales desde Latinoamérica. Pedagogías de esperanza. In *Cambiar la educación para cambiar el mundo... ¡Por una acción educativa emancipadora! Actas del IV Congreso de Educación para el Desarrollo*. (19-56. or.). Bilbo, Hegoa. Hemendik hartua: <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/330>>.

Orrego Echeverría, Israel (2018). El problema ontológico del desarrollo y la educación emancipadora; reflexiones desde la educación para el desarrollo latinoamericana. In *Hariak. Recreando la educación emancipadora*. 4. zk. (4-11. or.). Bilbo: Hegoa. Hemendik hartua: <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/383>>.

Ortega, M<sup>a</sup> Luz (2007). Educación para el Desarrollo: Evolución. In Gema Celorio eta Alicia López de Munain (koord.) *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. (30-132. or.). Bilbo: Hegoa. Hemendik hartua: <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/62/Diccionario\\_de\\_Educacion\\_para\\_el\\_Desarrollo.pdf?1488539200](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/62/Diccionario_de_Educacion_para_el_Desarrollo.pdf?1488539200)>.